



ALBOAN

## Garapenaren finantzaketarako nazioarteko baliabideak: **Tobin tasa** eta “Nazioarteko Finantza Tresna” (IFF)



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAETAKO SAILA  
Gazarte Geroaketa Sailburuordetza  
Gazapen Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y  
ASUNTOS SOCIALES  
Voscomendado de Asuntos Sociales  
Dirección de Cooperación al Desarrollo



Argitalpen hau Milurtekoko Garapen Helburuen egoerari buruzko 5 ikerketaz osatutako bilduma baten zati da. Gai honen inguruan sakondu nahi izanez gero bestelako material osagarria ere badugu (sakontzeko koadernoak, komikiak, posterrak...), eskaria gure bulegotan zein gure web orrian egin dezakezu.

## Ikerketak ALBOAN

1. Herritartasunetik hiritartasunera eta hiritartasunetik herritartasunera. Ibilitako bidea. (2006)
2. Participación ciudadana y sistematización de experiencias. (2007)
3. Zenbakiez haratago: Euskadiko garapenerako lankidetzaz eztabaidan. (2007)
4. Nazioarteko boluntario-lana: inplikazioaren eta elkarrikeraren kulturalaren esperientzia. Ikasteko esperientzia. (2007)
5. Zor jasangaitza. (2008)
6. Garapenaren finantzaketarako nazioarteko baliabideak: Tobin tasa eta "Nazioarteko Finantza Tresna" (IFF). (2008)

Garapenaren finantzaketarako nazioarteko  
baliabideak: Tobin Tasa  
eta “Nazioarteko Finantza Tresna” (IFF)



Argitaratzailea:

**ALBOAN**

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo

Tel.: 944 151 135 • Faxe: 944 161 938  
alboanbi@alboan.org

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea

Tel.: 948 231 302 • Faxe: 948 264 308  
alboanna@alboan.org

Erronda Kalea 7, 4. Ezk • 20001 Donostia

Tel.: 943 275 173 • Faxe: 943 320 267  
alboangi@alboan.org

Monseñor Estenaga, 1 • 01002 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 202 676 • Faxe: 945 202 676  
alboanar@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: Manfred Nolte

Itzulpena: Elhuyar

Data: abendua 2008

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: Bi-1977-08

ISBN: 978-84-612-4363-1

---

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburua aipatzen baldin bada.

# Aurkibidea

Hitzaurrea	5
<b>Garapenaren finantzaketarako nazioarteko baliabideak: Tobin Tasa eta “Nazioarteko Finantza Tresna”</b>	
I. Nazioarteko Finantza Tresna. Proposamenen laburpena	7
1. Proposamenaren abiapuntua	7
2. Mekanismoaren ezaugarriak	8
3. Bideragarritasun teknikoa: aktiboen titulizazio-prozesua	10
4. Bideragarritasun Politikoa	13
5. Ondorioak	16
II. Dibisen Transakzioak Zergapetu: Tobin Tasa	22
1. Proposamenaren abiapuntua	22
2. Mekanismoaren funtzionamendua	23
3. Zergaren bideragarritasun teknikoa	25
4. Zergaren bideragarritasun Politikoa	27
5. Ondorioak	31



## HITZAURREA

---

### ALBOAN

Milurtekoko Garapen Helburuen finantzazioaren inguruko eztabaidan, begirada guztiak nazioarteko iturriei zuzendu zaizkie, garapenari laguntzeko baliabide gehigarriak lortzen lagundu baitezakete. Koaderno honetan, eztabaidagai izan diren instrumentu horietako biren azterketa laburra egingo dugu: lehena, Nazioarteko Finantza Tresna da (*International Finance Facility, IFF*), eta bigarrena, Finantza Transakzioen gaineko Zerga; azken hori *Tobin Tasa* gisa da ezagunagoa, proposatu zuen lehen pertsonaren izena, James Tobin, hartu baitu.

Datozen orrietako testuen inguruko aipamen batzuk egin nahi genituzke hitzaurre honetan, eta esan beharra dago, aipamen horiek idazlearen iritziarekin bat datozena. Lehenik eta behin, aipatzekoa da testuek izaera zeharo teknikoa eta finantzarioa dutela. Horrelako tresnak zorrozatasun apur batekin aztertzeko, ia ezinbestekoa da arloko argota eta zenbait azterketa-kategoria erabiltzen jakitea, eta hori ez da erraza, inondik inora ere. Iruditzen zaigu mekanismo horiek aztertzeko orduan finantza-arloko espezialista baten laguntza teknikoa izatea zinez garrantzitsua dela. Originaltasun eta garrantzi berezia du IFFren inguruko azterketak; Manfred Nolte-k “barrenak atera” dizkio, haren inguruko datu zehatzen bila. Eta, hori guztia, gainera, informazioz aseta izan arren, “letra txikia” bilatzea, batere erraza ez den mundu batean. Manfred-ek lortu du, ordea.

Bigarren aipamenarekin, Milurtekoko Garapen Helburuei (MGHei) buruz **ALBOAN**ek duen hezkuntza baliabideen bildumako zero zenbakidun koadernoan agertu ziren ideia pare bat gogora ekarri nahi genituzke. Lehenik eta behin,

nazioarteko finantzazioa bilatzea ezin dela aitzakia izan baliabideak herrialde barruan lortzen ez saiatzeko (ezta herrialde aberatsak txiroekin zuhurkerian ibiltzeko zurigarritzat ere). Herrialde barruko baliabideak lortzeko gaiak, berriz, hainbat gai dakarzkigu gogora: aberastasuna nola banatuta dagoen herrialdeetan, aberastasun hori birbanatzeko mekanismoak (sistema fiskal aurrerakoien bidez), atzerriko enpresek hegoaldeko herrialdeetan egindako inbertsioen eta izandako jardueraren ardura, natura-baliabideak herrialdearentzako giza garapen bilakatzeko mekanismoak, hegoaldeko herrialdeetako eliteen zeregina eta iparraldeko eliteekin duten lotura, besteak beste. Horiez gain, beste gai asko daude, garrantzi handikoak eta iparra/hegoa harremanen errealitatera gehiago hurbiltzen gaituztenak, guztiak ere.

Aurreko puntuaren hariari jarraituz, MGHen finantzazioaren inguruko eztabaidak ez digu pentsarazi behar pobreziaren arazoaren konponbidea baliabide ekonomikoaren gain bakarrik dagoenik. Oso beharrezkoak dira, dudarik gabe. Baina, orduan esan genuen bezala, pobreziaren amaiera ez da helduko finantza-baliabideen eta konponketa teknikoaren eskutik, izaera politikoa duen auzia baita. Benetako arazoa da munduan boterea nola banatzen den gizataldeen artean, eta zer mekanismo eta erakunde diren beharrezkoak balantza orekatu dadin, eta ez dadin betiko hain egoera asimetrikoan egon.

Aldez aurreko zehaztapenak egin ondoren, nazioarteko finantzen mundu zoragarriaren txanda da orain.



# **GARAPENAREN FINANTZAKETARAKO NAZIOARTEKO BALIABIDEAK: TOBIN TASA ETA “NAZIOARTEKO FINANTZA TRESNA”**

---

*Manfred Nolte*<sup>1</sup>

## **I. NAZIOARTEKO FINANTZA TRESNA. PROPOSAMENEN LABURPENA**

### **1. Proposamenaren abiapuntua**

Garapena finantzatzeko beste tresna berrietan bezala, Milurtekorako Garapen Helburuei (MGH) lotuta, 2000n hartutako konpromisoak aurreikusitako epean (2015) ez betetzeko dagoen arrisku handian oinarritzen da ideiarene abiapuntua. Hasierako proposamena 2003koa<sup>2</sup> da, eta argi dago nork egin duen: Britainia Handiko Ekonomia eta Finantza Ministerioko Gordon Brownek eta bere taldeak. 2004an, lerro sistematikoagoak dituen eta proiektuaren egileak interpretatzeko oinarritzko euskarria osatzen duen beste batek ordezkatu zuen. Azken iturri hori Oinarritzko Dokumentua/Nazioarteko Finantza Tresna (OD/IFF, ingelesezko sigletan)<sup>3</sup> izendatu dugu.

---

<sup>1</sup> Idazlea, Manfred Nolte, **ALBOAN**en kolaboratzailea da, eta bi tresnen azterketa zehatzagoak argitaratu ditu beste aldizkari espezializatu batzuetan. Hemen azterketaren laburpena baino ez dugu egin. Hauek dira bi artikulua: *Gravar las Transacciones en Divisas: Límites y Posibilidades para la Financiación del Desarrollo*, Boletín de Estudios Económicos. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo, 2007ko apirila, 190 zk., 6. alea; eta *La Titulización de la Ayuda al Desarrollo*, Revista de Fomento Social. Fundación ETEA para el Desarrollo y la Cooperación. Kordobako Unibertsitatea. 2007ko ekaina.

<sup>2</sup> HM TREASURY & DFID (2003 a), *International Finance Facility*.  
[www.hm-treasury.gov.uk/documents/international\\_issues/int\\_gnd\\_intfinance.cfm](http://www.hm-treasury.gov.uk/documents/international_issues/int_gnd_intfinance.cfm) helbidean eskuragarri.

<sup>3</sup> HM TREASURY & DFID (2004), *International Finance Facility*.  
[www.hm-treasury.gov.uk/documents/international\\_issues/int\\_gnd\\_intfinance.cfm](http://www.hm-treasury.gov.uk/documents/international_issues/int_gnd_intfinance.cfm) helbidean eskuragarri.

## 2. Mekanismoaren ezaugarriak

IFF nazioarteko finantza-merkatuetan oso zabaldua dagoen jardute batez baliatzen da: titulizazioaz. Titulizazioa ez da Erakunde baten balantzean ageri diren aktiboak errenta finkoko baloreetara aldatzea besterik; horrela, eskatzen dituzten inbertitzaileei merkatuan kokatu ahal izateko. Titulu horiek bere lagatzaileari likidezia sortzen diote, eramaile bereiziaren bidez –Helburu Bereziatarako Eramailea– Titulizazio Fondo gisa ezaguna.

Herrialde emaileen laguntzaren aurrez aurreko karga-tresna da. *Aurrez aurreko karga* onartzeak berarekin dakar IFF-k baliabide berriak edo baliabide osagarriak ez sortzea. Aurreratu besterik ez ditu egiten. Herrialde emaileen epe luzerako konpromisoetan oinarrituta, IFF-k kapitalei palanka-efektua eragingo lieke nazioarteko merkatuetan bonuak jaulkiz. Herrialde emaileek finantzatzen duten IFF litzateke azken inbertitzaileei bonuak berrerostearen arduraduna, zorraren zerbitzua, aurrez aurreko komisioak, kudeaketa-gastuak eta Eramaile jaulkitzailearen jaulkipenen mantenu-gastuak barne.

Herrialde emaileek, laguntza esleitzean eta ematean, *maila handiko printzipio-mulzoa* adostu ahal izango dute, horrela, laguntzaren eraginkortasuna areagotzeko<sup>4</sup>:

- Herrialde emaileko hornitzaileekin egindako kontratuei lotuta ez dauden baliabideak.
- Gutxienez, hiru urteko iraupena izango dutela aurreikusten diren programei izendatutako baliabideak. Baliabideak dohaintza gisa emango dira eta hartzaile ugariri zuzenduta egongo dira.
- Herrialde oso pobreei zuzendutako baliabideak. Oraindik handiegia da nahiko errenta-maila altua duten herrialdeetara bideratzen den laguntza.


1. taulak IFF-ren egitura azaltzen du laburki, OD/IFF-n<sup>5</sup> erakusten den bezalaxe. Taulan, herrialde emaileek urteroko ordainketa batzuk egiteko hartutako konpromisoa jasotzen da. Ordainketa horiek IFF-ren 15 urteko programak bermatuko dituzte. 2010etik aurrera, urtean 50 mila milioikoa litzatekeen balizko programa azaltzen du 2. taulak<sup>6</sup>, eta, aldi berean, fluxu nominal iraunkorrekin zorraren zer-

---


<sup>4</sup> Berdin. 3.9 paragrafoa.

<sup>5</sup> Berdin. 4.1 paragrafoa.

<sup>6</sup> HM TREASURY & DFID (2003 b), *International Finance Facility. A technical note*. 34. paragrafoa.  
[www.hm-treasury.gov.uk/documents/international\\_issues/int\\_gnd\\_intfinance.cfm](http://www.hm-treasury.gov.uk/documents/international_issues/int_gnd_intfinance.cfm) helbidean eskuragarri.



Iturria: Britainia Handiko Altxorra.



Iturria: Britainia Handiko Altxorra.

bitzua gauzatzen du. 2018tik aurrera, Garapenerako Laguntza Ofizialean (GLO) eman ohi den esleipenaren zati bat jaulkipen bizien amortizazioari aplikatuko zaio, eta, ondorioz, Hegora helduko den laguntza txikiagoa izango da.

Ezaugarri osagarri batzuek aparteko garrantzia hartzen dute:

- *Lehentasun-mailako finantza-baldintzak*<sup>7</sup> arautzen duenaren arabera, herrialde emaileen bermeak, edozein kasutan, herrialde hartzaileek “gobernu onaren oinarritzko baldintza” betetzeari lotuak egongo dira, zehazki, herrialde hartzaile guztiek Nazioarteko Diru Fondoak (NDF) jartzen dituen betebeharrak betetzeari.
- Oro har, herrialde emaileak denen artean eta era ez solidarioan lirateke IFF-ren ordainketen arduradun.
- IFF-k bere fondoak jadanik existitzen diren mekanismo aldebikoen edo aldeaniztunen bidez bideratuko lituzke.

GLOk sozialki zor den eta politikoki eskaera publiko batean baino gehiagotan endosatu den agindu moral bati erantzuten dion neurrian, legitimoki esan deza-kegu Iparraldeko herrialdeek Hegoaldeko herrialdeekiko irabazi duten luzamendu baten titulizazioa dela. G-7a eskusiboki izendatzeko, 2003an, GLOn 49,5 mila milioi dolarreko ekarpena egin zuen. Zenbateko hori oso urrun dago beraien Barne Produktu Gordinen (BPG) %0,7 aplikatu izan balitz lortuko liratekeen 168,5 mila milioi dolarretatik. Ez zaigu gehiegizkoa iruditzen bi zenbateko horien diferentzia izatea, 119 mila milioi dolar, G-7aren garapenerako urteko luzamendua. Kopuru hori *itzulia* izan beharko litzateke eta ez soilik aurreratua.

### 3. Bideragarritasun teknikoak: aktiboen titulizazio-prozesua

Gordon Brown-en proposamenak, bere argitalpen ofizialean (OD/IFF), ez du era esplizituan zehazten IFF-k helburu berezietarako eramaile izan behar duenik (ingelesezko sigletan SPV), ezta deskribatzen duen fondoaren aurrerapen-prozesua titulizazio-mekanismo batena denik ere<sup>8</sup>. Figura hori berariaz aipatu ez izanak azaldu ditzake proposamenaren zenbait anbiguotasun edo ahultasun tekniko.

---

<sup>7</sup> Baldintza hori, *high-level financing condition*, bonuen balizko berme-kontratuen klausula bat da, eta, aurrerago ikusiko dugunez, IFF-ren puntu ahulenetakoa da.

<sup>8</sup> Altxorrekoi kideek (Stephen Pickford), ODk 2004ko maiatzaren 13an antolatutako mintegian egindako aurkezpen bat dago. Helbide honetan eskura daiteke: [www.odi.org.uk/speeches/IFF/](http://www.odi.org.uk/speeches/IFF/). Bertan aipatzen da herrialde emaileen epe luzerako konpromisoak nazioarteko merkatuetan titulizatuko direla.

3. taulak IFF-ren mekanismoa interpretatzen du, merkatuaren erabilerekin parekatuta. Herrialde emailen etorkizuneko Konpromisoen aktiboarekin, IFF-k, eramaile bereizi gisa, Bonuak jaulkitzen ditu. Bonu horiek Banku-Sindikatu batek segurtatuko eta salduko lituzke. Burtsa batek edo gehiagok bermatuko dute Bonuen likidezia. Azkenik, Jaulkipenaren diru-produktuarekin, Jaulkitzaileak –IFF– Iparraldeko herrialdeentzat aurreikusitako laguntzak esleitzeko beharrezko Fondoak izango lituzke.

“Inbertitzeko mailegua hartzea, etxeko eremuan bezala garapenerakoan ere, nahiko zabaldua dagoen printzipioa da” aipamenak anbiguotasun zenbait transmititzen du. Herrialde emaille guztiek hartzen dituzte maileguak etorkizuneko ongizatean inbertitzeko, eta Munduko Bankua ere ohiko hartzailea da kapitalen merkatuetan<sup>9</sup>. Titulizazioa ez da jasapen-eragiketa. Mailegua hartzean, mailegatzailerak tronkoa eta interesak epemugan itzultzeko kaxa sortzeko duen gaitasunaz konbentziturik du mailegu-emaillea. Titulizazioak ez dio kopuru *abstraktuak* maileguan hartzeari erantzuten, ezta kaxa sortzeko gaitasun propioari kontra egiten ere.


Titulizazioak, oro har, eta IFF-k, bereiziki, bonuak jaulkiz, formazko konpromiso batean (*pledge*) egiaztatzen den mailegu-eskubidea irmoki deskontatzen dute (hau da, *saltzen dute*). Hori gutxi balitz, ohiko maileguaren/jesapenaren azaleko erlazioa iraunkorra da. Aldiz, mailegu-eskubidea mugitu eta eramaile bereziari salduz, lagatzaileak –kasu honetan, herrialde pobreak–, bonuen truk, mailegu-eskubidea babesten duen likidezia jasotzen du. Kaxaren truk mailegu-eskubidea kanpora ateraz edo esportatuz, Eramaile Berezia da mailegu berriaren titularra, eta hasierako lagatzaileari buruzko apelazio guztiak desagertu egiten dira. Horrela, uko egiten zaio zenbait ordenamendutan *bukaera onari baldintzatuta* izenarekin ezagutzen den klausulari.

Gainera, Gestore Entitatea Titulizazio Fondoarekin nahasi ohi da. Balizko burokrasia berrietatik ihes egiteko eta alferrikako kostuak ez gehitzeko, erabaki zen IFF ez dela fondoak izendatzeko eta banatzeko Agentzia berria izango; eta zeregin garrantzitsu horiek kaudimen teknikoa frogatua duten eta jadanik existitzen diren NDFa edo Munduko Bankua bezalako izaera aldebikoa edo aldeaniztuna duten organismoen bidez egingo direla. Aurrerago, hala ere, OD/IFF-k azaltzen du Entitate horrek –IFF-z ari da– gobernatzearen gaia berraztertu beharko duela herrialde hartzaileei protagonismo handiagoa emateko. Puntu hori erabat logikoa da, herrialde horiek baitira, herrialde emailen aurrean, beren mailegu-eskubidea titulizatzen dutenak.

---

<sup>9</sup> HM TREASURY & DFID (2004), op.cit. 3.4. paragrafoa.

**3. taula: Garapenerako Luzamenduaren Titulizazio Mekanismoa (IFF)**



Iturria: guk egina.

#### 4. Bideragarritasun politikoa<sup>10</sup>

2006ko azaroaren 7an, IFF teknikan oinarritutako Inaugurazio Finantzazioa edo *Esperientzia Pilotua* gauzatu zen. IFFIm deitu zen (ingelesezko sigletan, Immunizatze Nazioarteko Finantza Tresna)<sup>11</sup>. Jaulkipenaren oinarritzko iturriak IFFIm-ren web gunean jasotzen dira<sup>12</sup>, baita *Prospectus* Ofizialean ere (PR/IFFIm). Azken horren kopiak Londresko Citicorp-en<sup>13</sup> edo Luxenburgoko Burtsan<sup>14</sup> lor daitezke.

Asmo handiko proiektuaren gauzatze sinbolikoa aurrerapauso politiko handia da, eta etorkizuneko jaulkipenen aurrean tresnaren hasierako profila egiaztatzea ahalbidetzen du.

IFFIm-ren lehen helburua munduko 70 herrialde pobreenetan<sup>15</sup>, GAVIren (Global Alliance for Vaccines and Immunisation) immunizatze eta/edo txertatzeko programak fondoz hornitzea da. Horretarako, IFFIm-k AEBko 4 mila milioi dolar bideratuko ditu 2006 eta 2015 artean<sup>16</sup>. Milurtekoko laugarren Helburua (MGH4), 2015. urterako, 5 urtetik beherako haurren heriotza-tasa 2/3 jaitea da. Bost urtetik beherako haurrak immunizatze programek asko lagundu dezakete 4. helburua erdiesten. Herrialde pobreetan txertoen erabilera orokortuz, GAVI 2000tik ari da haurrak salbatzeko eta pertsonen osasuna babesteko lanean<sup>17</sup>.

---

<sup>10</sup> 2005eko irailean, Milurtekoko Berrikusketa Gailurrean, beste behin, emaila subirano zenbaitek MGHak lortzeko konpromisoa berretsi zuten, beren GLOa gehituz eta Finantzaziorako mekanismo berriak abian jarri. IFFIm-a ondorioetako bat da.

<sup>11</sup> Immunizaziorako Nazioarteko Finantza Tresna. 1.000 milioi dolar jaulkitzea, ehuneko bosteko kupoia. Zor globalaren jaulkipen-programaren barruan, irekierako ordaindukoak, mugaeguna 2011ko azaroaren 14a dutenak.

<sup>12</sup> [www.iff-immunisation.org](http://www.iff-immunisation.org)

<sup>13</sup> Citicorp Trustee Company Limited, Citigroup Centre, Canada Square, London E14 5LB.

<sup>14</sup> [www.bourse.lu](http://www.bourse.lu)

<sup>15</sup> PR/IFFIm. 6. orrialdea. GAVI herrialde pobreetan gero eta txikiagoa den immunizazio-tasari erantzun eta aurre egiteko sortu zen. GAVI erakunde publiko-pribatua da, kide iraunkorrez (OME, UNICEF, Munduko Bankua, Bill eta Melinda Gates Fundazioa eta GAVI fondoa), nazio aberatsetako eta pobreetako gobernuetako ordezkari txandakatuz, eta txertatze-, osasun- eta ikerketa-arloko ordezkari osatua. 2000. urtetik, GAVIk AEBko 1,6 mila milioi dolar banatu ditu Hegoaldeko 70 herrialderen mesedetan. PR/IFFIm, 8. orrialdea. [www.gavialliance.org](http://www.gavialliance.org) eta <http://vaccinealliance.org>

<sup>16</sup> PR/IFFIm. 7. orrialdea.

<sup>17</sup> OMEk kalkulatu du 27 milioi haurrei ez zaiela haurren ohiko gaixotasunen aurkako txertorik jarri. Horren ondorioz, erraz senda litezkeen gaixotasunekin, urtero 2 eta 3 milioi bitarte haur hiltzen da. Erakunde berak uste du IFFIm-ren baliabideei esker, datozen 10 urteetan, 500 milioi pertsona baino gehiago txertatu ahal izango dela, horrela 5 milioi haurren eta 5 milioi pertsona helduren heriotza saihesteko. [www.gavialliance.org](http://www.gavialliance.org)

Lau mila milioiko programaren baitako 1.000 milioi dolarreko jaulkipena da, 2006ko azaroaren 14ko jaulkitze-data eta 2011ko azaroaren 14ko epemuga duena; interes-tipoa azpiko bonuarekiko oinarritzko 31 puntukoa da (urteko %5 finko), jaulkipen-prezioa %99,91, *yield* %5,019, aldi berean berrerostekoa iraungitzean eta Luxenburgoko Burtsan kotizatua. Jaulkitzailearen tarifazioa (IFFIm) eta abonua: AAA/Aaa/AAA<sup>18</sup>.

IFFIm-ren funtzionatzeko modua 4. taulan<sup>19</sup> ageri da, eta 2. taulan azaldutakoaren oso antzekoa da. IFFIm-ren, Emaileen (*Grantors*) eta beste parte hartzaileen arteko kaxa-fluxua erakusten du. Lehenago esan bezala, sistema titulizazio gisa balioztatzeko balio du. Hori irizten diote ere Banku Erregulatzaileak eta Komunitateko Estatistika Bulegoak<sup>20</sup>.

Jaulkitzailearekin (IFFIm) eta Fondoaren hartzaile zuzenarekin batera (GAVI Fund Affiliate), Munduko Bankua ere IFFIm-ren Diruzain izendatu da. Besteak beste, hauek dira bere betebeharrak: GAVI Fund Affiliate-k aurkeztutako txertatze-/immunizazio-programak gauzatzeko IFFIm-k duen finantzazio-gaitasuna baloratu; aldeztu aurretik onartutako programetako betebeharrak aurre egiteko, IFFIm-k duen finantzazio-gaitasuna aldi-aldi baloratu, baita zirkulazioan dauden bonuak ere; kontu-administratzaile zerbitzua sustatu; IFFIm-ren finantzazio-, arriskuen kudeaketa-, inbertsioen eta likideziaren kudeaketa-politikak aholkatu; aipatu politikak onartuta, aurreikusitako finantza-transakzioak exekutatu; programa jakin baten baitan, bonu-jaulkipenekin zerikusia duten gaitan IFFIm aholkatu; Jaulkitzailearen eta jaulkipenen kaudimenaren eta ratingaren bermatzaile denez *maniobra ratioa*<sup>21</sup> zainduko du. Proiektu pilotuan, maniobra ratioak ez du

---

<sup>18</sup> Formato Eurobond 144a, Reg. S; Clearing-sistemak: Euroclear, Clearstream eta DTC; ISIN:XSo274548287 kodea.


<sup>19</sup> PR/IFFIm, 16. orrialdea.

<sup>20</sup> 2005eko abuztuaren 2an, Eurostatek, IFFIm lotuta zera onartu zuen: a) IFFIm “nazioarteko erakunde” gisa sailkatu behar dela, “gainerako mundua” epigrafean, eta, b) Gobernuen dohaintzak ordainketa arrunt gisa sailkatuko direla eta ordainketa galdagarri bihurtzean erregistratuko direla, memento horretan sektore publikoaren zorpetze garbiari eraginez. Ikus Eurostat news release 98/2005, 2005eko abuztuaren 2a. <http://Europa.eu.int/comm/eurostat/>. Horren ondorioz, dohaintza-itunak ez dira izenpetze-mementoan kontabilizatuko, baizik ordainketak egitean; hartara, herrialde emaileen zalantza-ratioak arintzen dira. Neurri horrek dio ez dela etorkizuneko IFF-entzat aurrekari bat. Bestalde, 2006ko urriaren 24an, Banku Ikuskaritzarako Basileako Batzordeak banku-ikuskatze erakundeek eta erregulatzaileek Bankuek IFFIm-n dituzten posizioei %oko haztapena egiteko baimena ematen du (Basel II Framework, 2004ko ekaina) PR/IFFIm 7. orrialdea.

<sup>21</sup> “IFFIm Gearing Ratio Limit”. PR/IFFIm, 92. orrialdea.



4. taula: IFFIm-ren jarduerak



Iturria: RP/IFFIm.

IFFIm-ren pasibo galdagarria ken aktibo likidoak zati aktibo finantzarioen zatiduraren urteko balio netoaren %100 baino handiagoa izan behar, hau da, Ordainketa Itunean konprometituta dauden fondoak.

Hasierako programako Emaileak, eta, ondorioz, jaulkipen pilotuarenak Frantzia, Italia, Norvegia, Espainia, Suedia eta Erresuma Batua dira. Horiek guztiek Atzeraezina den Konpromisoa izenpetu dute (*Grant Agreement*). Bertan zehazten da, 2006ko urriaren 31 eta 2026ko urriaren 15a bitarte, IFFIm-ren esku lau mila milioi dolarreko kopurua<sup>22</sup> jartzen dutela. Brasilek eta Hego Afrikako Errepublikak fondo osagarriak konprometitzeko asmoa agertu dute. Herrialde horiek aurrea hartu eta abiapuntuko irizpidea markatu dute, Gordon Brown-en proposamenaren kantitate-terminoetan, herrialdeen Komunitateak osotasunean jarraitu dezan.

Ordainketa Ituna da, etorkizuneko laguntza-fluxuen egutegi *bermatua* den neurrian, titulizazio-funtzioaren gakoa. Horretan oinarrituta jaulkitzaileak kaxa-fluxuak eguneratzen ditu, eta zuzenean (aurretiazko karga) txirotasuna gutxitzera zuzentzen ditu. Tresna hor dago, eta eraginkorra da. “Salbatu bizitza gehiago, gaur”. Horra hor mezu nagusia<sup>23</sup>.

5. taulak Gordon Brown-en asmo handiko IFFren marko teorikoaren eta IFFIm-ren Jaulkipen Pilotuaren arteko zenbait parekotasun aurkezten ditu.

## 5. Ondorioak

### PROIEKTUAREN ARGIAK

Erresuma Batuko ekimenaren lehen meritua herrialde aberatsen nazioarteko komunitateari ohartaraztea da, MGHak erdiesteko ideiaaren atzetik jarraitzeko finantzazio-modu osagarrien mesedetan. Kontzientziak esnatzen ditu eta kontra-jarriak diren lerrokadurak sustatzen ditu, berez dialektikoki positiboak direnak, printzipioz, Monterrey-n 2002an hartutako konpromiso politikoa luzatuz<sup>25</sup>.

---

<sup>22</sup> Frantzia, 372.800.000 euro; Italia, 473.450.000 euro; Norvegia, 27.000.000 dolar; Espainia, 189.500.000 euro; Suedia, 276.150.000 koroa suediar, eta Erresuma Batua, 1.380.000.000 libra.

<sup>23</sup> PR/IFFIm-n ageri den ezaugarri gehigarri multzo batek tesi hori baieztatzen du, titulizazioaren aipamen zuzena saihestu arren. Horrela, Bonuak IFFIm-ren obligazio dira eskusiboki (PR/IFFIm, 26. orrialdea); Bonuen tronkoagatik eta interesengatik IFFIm-ren kontrako errekurtsua mugatua da (PR/IFFIm, 26 orrialdea); Bonuak IFFIm-ren obligazio-korporatiboak dira eskusiboki. (PR/IFFIm, 26 orrialdea); IFFIm-ren aktiboak mugatuak dira (PR/IFFIm, 26 orrialdea); IFFIm ez da Emaileen amaiera onaren erantzule egiten (PR/IFFIm, 27 orrialdea); Bonuen Finantza Zerbitzua Emaileen kaudimenaren arabera da (PR/IFFIm, 27 orrialdea).

<sup>25</sup> OD/IFF, 3. orrialdea.

## 5. taula. Gordon Brown-ek egindako Proposamen Generikoaren eta IFFIm-ren Jaulkipen Pilotuaren arteko parekotasunak

Azalpena	IFF (Britainia Handiko Formatua)	IFFIm (GAVI)
Programak eta Jaulkipenak.	Programaren epemuga 2030. 15 urteko jaulkipenak.	10 urteko programa, 2006-2015 barne. 5 urteko jaulkipenak.
Jaulkipenen urteko zenbatekoa.	50.000 MM dolar.	1.000 MM dolar.
Jaulkipenen hasiera-data.	2005 edo lehenago.	2006.
SPV edo Eramaille Berezia (aldi berean, <i>Jaulkitzailea</i> ).	Zehaztu gabe.	" <i>International Finance Facility for Immunisation Company</i> ". Ingalaterran eta Galesen Erantzukizun Mugatuko Sozietatea eta Irabazi Asmorik gabeko Fundazioa. GAVI da haren titular bakarra.
Jaulkitzailearen eta Jaulkipenaren ratinga.	Maximoa.	Maximoa: AAA/Aaa/AAA.
Jaulkipenaren kupoia edo kostua.	Arrisku subiranoko jaulkipenei parekagarria ( <i>Prime</i> ).	Arrisku Subiranoko Jaulkipenei parekagarria. Urteko %5eko tasa finkoko kupoia, epe berean (5 urte) Altxor amerikarreko azpikoan oinarritzko 36 punturen ondorioa. Jaulkipen-datan 5 urterako Euribor Flat.
Gestore-entitatea.	Zehaztu gabe. Gaur eguneko Erakunde aldeaniztunak baliatuz.	IFFIm Treasury Manager: Munduko Bankua.
Bermeak eta dohaintzak.	Etorkizuneko kopuruetan ohiko dohaintzak eta bermeak.	Grant Agreement: 20 urterako ordainketa-ituna. Lehen titulizazio pilotua 5 urtera.
Herrialde emailak.	Iparraldeko herrialde ugari.	Erresuma Batua, Frantzia, Italia, Espainia, Suedia eta Norvegia.
Jaulkitzailea.	IFF.	IFFIm GAVIren eskubide guztien lagatzaile gisa. Jaulkipenen Emaiza lehenik GAVIra itzuliko da eta, ondoren, Hegoaldeko herrialdeetara.
Banku Sindikatua.	Nazioarteko merkatuen eskura.	Nazioarteko merkatuen eskura.
Kotizazioa.	Burtsa edo Lehen mailako Burtsak.	Luxenburgoko burtsa.
Azken onuraduna.	Hegoaldeko herrialdeak.	GAVI Fund Affiliate, Hegoaldeko 70 herrialdeei izendatzeko.
Programaren helburua.	MGH.	MGH 4.
Kontabilizazio arazoak.	<i>Basilea II</i> haztapena irekita IFF arriskuan, eta programen zenbaketa zor korronte gisa.	Itxiak 1. EEE: IFFIm barne hartzea Garapen Aldeaniztunerako Banku gisa. 2. <i>Basilea II</i> : IFFIm-ko posizioetarako %oko zenbaketa. 3. IFF programak ez dira zor arrunta.
Harpidetza.	Merkatua.	Nagusiki Handizkakoa eta Instituzionala.
Legea.	Zehazteke.	Ingelesa, Espainiarra, Italiarra.
Titulizazioaren helburua.	2015etik aurrera Emailak aurreikusten duten GLOren bermeak.	Grant Payments (2015 aurretiko konpromisoak, urteko egutegiaren arabera, 2006ko urriaren 31tik aurrerako ordainketekin).
Baldintzatze-klausula.	Lehentasun-mailako finantza-baldintza gisa aipatua.	Klausula bera. PR/IFFIm.
Aurretiazko kargarako mekanismoa.	Ez ditu baliabide berriak sortzen, aurrea hartzen du.	Esleipena dudazkoa da. Itxuran baliabide <sup>24</sup> gehigarriak dira.
Zaintza-mekanismoak.	Ez dira aipatzen.	Gearing ratioa eta beste batzuk. <sup>24</sup>

Iturria: guk egina.

<sup>24</sup> DB/IFFIm. 92 orr.

Bigarrenik, IFF-k, inpaktu-eragin gisa, 2007 eta 2017 bitartean bestela banatuko zirenak baino laguntza-fondo gehiago banatuko ditu<sup>26</sup>. World Development Movement-ek (WDM)<sup>27</sup> eta Centre for Global Development<sup>28</sup>-ek egindako txostenak eragin hori kuantifikatzen saiatzen dira. Nahiz gaur egun ugalkortasun politikoa mikrojaulkipen batera murriztu den, epe laburrean eta, agian, epe osorako baliabide osagarrien aurrean gaude.

Hirugarrenik, IFF laguntzak eraginkorrago izan daitezten aldaketa kualitatiboa izan liteke, loturarik gabeko laguntza bezalako *oinarrizko printzipioei* buruz emailleek duten itunaren bidez<sup>29</sup>.

Laugarrenik, sektoreen artean inbertsio hedakorrei, aldi berekoei eta iraunkorrei ekiteko behar besteko aurreikuspen-ahalmena eta masa kritikoa hornitzen ditu IFF-k, eta txirotasunaren sintomak agertu orduko arrazoieta eragingo du<sup>30</sup>.

Gainerakoan, IFF adosteko instrumentua da. Agertzen ari diren herrialdeen, garapen bidean dauden herrialdeen, nazioarteko erakunde<sup>31</sup>, fede-komunitateen, GKEen eta sektore pribatuko enpresen babes zabala jaso du. Erresuma Batuko Altxorren web guneak, horri buruzko dokumentu-ekarpen oparoa eskaintzen du<sup>32</sup>. 2004ko apirilean, Munduko Bankuko kide diren Afrikako herrialde guztiek batera onartu zuten IFF eredia. Afrikarako Batzordeak formalki endosatu du<sup>33</sup>.

---

<sup>26</sup> WORLD DEVELOPMENT MOVEMENT (2005), *The International Finance Facility. Boon or Burden for the Poor?* 9. orrialdea, 3.2 paragrafoa.  
[www.wdm.org.uk/resources/reports/other/theinternationalfinancefacility01022005.pdf](http://www.wdm.org.uk/resources/reports/other/theinternationalfinancefacility01022005.pdf)

<sup>27</sup> Idem. Ikus daiteke: ROGERSON, A. (2004), *The IFF: Issues and Options*, Overseas Development Institute. Opinions. [www.odi.org.uk/publications/opinions/15\\_the\\_IFT\\_Aprilo4.html](http://www.odi.org.uk/publications/opinions/15_the_IFT_Aprilo4.html)

<sup>28</sup> BARDER, O. eta YEH, E. (2006), *The Costs and Benefits of Front-loading and Predictability of Immunization*, Center for Global Development, Working Paper Number 80, January.  
[www.cgdev.org/content/publications/detail/6178](http://www.cgdev.org/content/publications/detail/6178)

<sup>29</sup> OD/IFF, 3. orrialdea.

<sup>30</sup> OD/IFF, 3. orrialdea.

<sup>31</sup> OD/IFF, 4. orrialdea.

<sup>32</sup> [www.hm-treasury.gov.uk/documents/international\\_issues/international\\_development/development\\_iff.cfm](http://www.hm-treasury.gov.uk/documents/international_issues/international_development/development_iff.cfm)

<sup>33</sup> COMMISSION FOR AFRICA (2005), *Our Common Interest*, 333-335. orrialdeak.

## PROIEKTUAREN ILUNTASUNAK

Hasteko, Erresuma Batuko Gobernuak berak –proposamenaren egilea– irizten dio garapen bidean dauden herrialde guztiak ez direla gai laguntza masibo osagarriak planifikatzeko eta eraginkorki baliatzeko, eta askok beren Sektore Publikoaren neurrian eta eraginkortasunean itogune nabarmenak aurkituko dituztela. Hori dela eta –eskatzen da–, IFF-k laguntza-fluxuak era mailakatuan aktiba ditzala, urteko 50 mila milioi dolarreko helburua lortu arte. Era berean, gehitzen du herrialde emaileek herrialde hartzaileetako gobernuarekin kolaboratu beharko dutela fondoen bideratze-, banatze- eta gauzatze-sistemak hobetzeko<sup>34</sup>.

Tresnaren aktibatze-mailaren arabera, eztabaidatzeko dagoen eragozpen bat aktibatutako GLOren zenbateko osoa litzateke, 30 urteko epean IFF kontuan hartu gabe aurreikusitako fluxu historikoen zenbatekoarekin alderatuta<sup>35</sup>. Titulizatutako zorraren interesak eta epemugan aurreikusitako amortizazioak GLOren ohiko aurrekontuen kontra gertatzen badira, IFF-k hasierako laguntza hori handituko du, baina programaren amaieran galera garbia izango da. Horren arrazoa da titulizazioak interesak sortzen dituela, zeina herrialde emaileen laguntza korrontearen aurrekontuari zordunduta kapitalen merkatu-  
ra eta titulizatutako zorraren azken inbertitzaileetara zuzenduko den, eta ez herrialde hartzaileetara<sup>36</sup>. WDMk<sup>37</sup> eta beste batzuek egindako azterketekin lerrokatuta, titulizazioaren zerbitzuak epe laburrera diru gehiago dakar, epe ertainera diru gutxiago eta eragiketaren osotasunerako finantza-saldo orokor negatiboa. Baina argudio horrek, aritmetikoki zuzena izanagatik, hutseko emaitza izango duen GLOren politika hartzen du bere gain, eta hori datozen 20 urteetako agertokian gauzatzea zail ikusten da. Immunizazio Proiektu Pilotuaren 4 mila milioi dolarrek bost urtez beherakoentzako osasun-laguntza “gehigarria”ren itxura osoa dute, etorkizuneko aurrekontuen gaur egungo esleipenetatik haratago.

---

<sup>34</sup> BOURGUIGNON, J.F eta SUNDBERG, M. (2007), *Aid Effectiveness-Opening the Black Box*, World Bank, [siteresources.worldbank.org/DEC/Resources/Aid-Effectiveness-MS-FB.pdf](http://siteresources.worldbank.org/DEC/Resources/Aid-Effectiveness-MS-FB.pdf) helbidean eskuragarri. Baita Munduko Bankuaren web-gunea ere “Development Effectiveness” [www.worldbank.org](http://www.worldbank.org) helbidean eskuragarri.

<sup>35</sup> WORLD DEVELOPMENT MOVEMENT (2005), op.cit.

<sup>36</sup> Gauzak horrela, IFF bere aurrekari hurbilena den *zorraren arintzea*-ren jarraipena izan liteke. Izan ere, bere garaian, *zorraren arintzea* ekimen handitzat jo zen eta herrialde pobreegana zuzendutako kaxa-fluxu berriekin gauzatu behar zen. Hala ere, errealtateak erakutsi du, maila handian, aurrekontu arruntetatik gauzatu dela, eta garapenerako finantzazio gehigarri eskasa eman zuen.

<sup>37</sup> WORLD DEVELOPMENT MOVEMENT (2005), op.cit. 1. taula, 16. orrialdea.

Beste zalantza bat da zein printzipioren arabera Gobernatuko den Titulizazio Fondoa –IFF– edo, osatuko balitz, gestorea. Ez baititu alferrik hartu beharko, besteak beste, lehendik aipatu ditugun *Goi Mailako Printzipioen*<sup>38</sup> eta antzeko gai garrantzitsuen inguruko erabakiak. Aurreikusten da ez dela instituzio berririk sortu beharko eta dirua gaur egungo aldebiko mekanismoen eta mekanismo aldeaniztunen bidez banatuko dela. Baina horrek ez du baztertzen etorkizuneko erabakiak Iparraldeko herrialdeen parte hartzearekin hartzea. Jaulkipen Pilotuaren kasuan, ez dirudi IFF/OD-n<sup>39</sup> iragarri zen Gobernatze berriaren *negoziazioari* heldu zitzaionik. GAVI da hauta daitezkeen 70 herrialdeen Taldetik proiektu kalifikatuak zehazten dituenak. Nolanahi ere, GAVIren titulartasunari eta Munduko Bankuak burutzen duen “Treasury Manager” funtzioari lotu behar gaitzaizkio, erabakien autonomia eta erabakiotan azken hartzaileek duten parte hartzea ebaluatzeko.

Beste ahultasun puntu bat hau da: IFF-n “herrialde hartzaileek gobernu onaren oinarritzko baldintza betetzeari lotuak daude herrialde emaileen bermeak; eta baldintza hori bete ezean, herrialde emaileak utzi egin beharko dio herrialde hartzaile horri dagokion IFF-rekin konprometituak dituen urteko ordainketak ordaintzeari”<sup>40</sup>. Oinarritzko baldintza hori *Lehen Mailako Finantza Baldintza*<sup>41</sup> deitzen da. Proiektu Pilotuan, NDFrekiko<sup>42</sup> ordainketak eguneratuta edukitzera mugatzen da baldintza. Merkatuak ulertzen badu klausulak herrialde askori eragin diezaiokeela, eten-baldintzei lotutako bermedun bonua eskuratzeko gai ez diren inbertitzaileak etsiaraziko lituzke. Harrigarria da, hortaz, klausula horri lotuta egonda ere, jaulkipen Pilotuak, hiru Kalifikazio Agentzia nagusien partetik, merkatuan rating altuena lortu izana. Gaur egun, GAVI-k hauta ditzakeen 70 herrialdetik lauk ordainketak zor dituzte NDFn eta Baldintzatze-klausulari<sup>43</sup> lotuak daude.

---

<sup>38</sup> *High Level Principles*, HM TREASURY & DFID (2004), op.cit.

<sup>39</sup> HM TREASURY & DFID (2004), op.cit. 4.10 paragrafoa.

<sup>40</sup> HM TREASURY & DFID (2004), op.cit.

<sup>41</sup> *High Level Financing Condition*, idem-ean.

<sup>42</sup> *Grant Payment Condition*. PR/IFFIm. 65. orrialdea.

<sup>43</sup> PR/IFFIm. 7 eta 65. orrialdeak. Liberia, Somalia, Sudan eta Zimbabwe dira. Herrialde horietako bakoitzak *Grant Agreement-en* duen pisua %1ekoa dela kontuan izanda, Txostenaren 13. orrialdean jartzen duenez, Herrialde Emailek GAVIri konprometitutako laguntzaren %4 kenduko dute, harik eta herrialde horien beren egoera erregularizatu arte.

IFF-ren hazkunde-hasiera nabarmenerako beste itzal bat da proiektuarekin bat egin dezaketen herrialde-kopurua urria izatea, eta, agian, munduko potentzia handi baten edo batzuen babesik ez jasotzea, horrek izango lukeen trakzio-eraginarekin. Gaur egun, IFF-ko bi eszeptiko nabarmen Estatu Batuak eta Japonia dira, eta itxura guztien arabera, epe laburrean ez dute ekimenarekin bat egingo.

## AZKEN ONDORIOAK

Kapitulu honen berariazko ikuspegiak apologetikoa baino gehiago teknikoa izan nahi izan du. Britainia Handiko Altxorraren mailako proposamen bat analitikoki xehatzea, dudarik gabe, egin beharreko ariketa da, alferrikako itxaropenik ez sortzeko, eta, hala balitz, hutsuneei eta puntu eztabaidagarriei aurea hartzeko. Hain zuzen ere, azpiko helburua –tresnari dagokiona, alegia– munduko herrialde pobreenetako txirotasunaren eskandalo zaurgarria arintzea delako, inoiz baino beharrezko-agoa da ekintzaren konpulsibitate moralera iritsi aurretik azterketa egitea.

Beharrezkoa izan da ziurtatzea IFF proposamen baliozkoa dela; izan ere, aktibo batzuen titulizazioa, kasu horretan etorkizuneko mailegu-eskubideak, kapitalen merkatuetan jarduera baliagarria eta ohikoa da baliabide-kopuru izugarriak mobilizatzeko, MGHak betetzeko eskatzen direnak bezalakoak. Esperientzia Pilotuarekin (IFFIm) egiaztatu da finantza-merkatuek Jaulkipenari ongi erantzun diotela, antolatze legitimoa bezain argia baita, finantza-merkatuen erabilerekin eta ohiturekin bat egiten baitu.

Epe luzearen alde –2016tik 2032ra– baino gehiago epe ertainaren alde –2015a arte– egiten duen neurrian, arazo kontzeptualak gaingiduz gero, MGHen finantzazioan lagundu dezake. Gizakia, batez ere denboraren dimentsioari lotua dagoen izakia izanik, etorkizuneko fondoak aurreratzeak gaur txirotasuna gutxitu badezake –hori da gure tesia– horrek eztabaida ezineko balioa du, eta horregatik egiten dugu horren alde.

IFF-k herrialde aberatsek GLOn konprometitutako BPGren %0,7aren helburu sekularrari ez lioke arreta galdu behar, ezta ezkutatu edo atzeratu ere, eta, are gutxiago, ordezkatu. Kontuan izanda helburu hori orain 40 urte onartu zela, 2005ean, herrialde emaila guztiek BPGren %0,45 gutxienez eman izan balute, gaur egungo zenbatekoei, urtean, 50 mila milioi dolar gehitu beharko litzaizkieke. Kopuru hori IFF-ren<sup>44</sup>

---

<sup>44</sup> CAFOD (2005), *International Finance Facility, CAFOD Response*.

[www.cafod.org.uk/policy\\_and\\_analysis/international\\_finance](http://www.cafod.org.uk/policy_and_analysis/international_finance) helbidean eskuragarri.

bidez lortzea espero dena baino gehiago da. Kolaborazio eskas horren aurrean, GLOn onartutako konpromisoetan, gure titulizazio-kontzeptua luzamendu ez-legitimoz oinarritzen dugu. GLO/BPGk onartutako %0,7ra heltzea mantsotu, atzeratu edo, kasurik txarrean, erritmoa konpentsatuko balu IFF-ri dagokion fondo-aldaketak edo fondoak aurreratzeak, aipatutako luzamendu horretaz gain, estatuaren ordainketarik eza izango genuke (*sovereign default*), txirotasuna desagerrarazteko edo arintzeko dugin agindu moralari dagokionez. GLO denboran aurreratzeaz gain gehitu egingo duen IFF Makroprograma batean dago beharrezko itxaropena; eta Gordon Brown-en hasierako enuntziatuko batura programatikoetan, bestelako luzamendurik eta interpretaziorik gabe.

## II. DIBISEN TRANSAKZIOAK ZERGAPETU: TOBIN TASA

### 1. Proposamenaren abiapuntua

Tobin Tasa-k James Tobin-i (1918-2002) zor dio bere izena. James Tobin ekonomialari amerikarrak 1981ean Ekonomiaren Nobel saria jaso zuen “finantza-merkatuen eta merkatuok kontsumo-, lan-, ekoizpen- eta prezio-erabakietan duten eragina ikertzeagatik”<sup>45</sup>. Pentsamendu Keynesiarren<sup>46</sup> oinardeko, Tobin, Kennedy Presidentearen finantza-aholkularia izan zen. Tasa hori 1972an<sup>47</sup> proposatu zuen lehen aldiz, baina 1978an<sup>48</sup> zabaldu zen entzute handiagoarekin. Bere aitzinekoak bezala, gobernuek ekonomian esku-hartzea defenditzen zuen ekoizpena egonkortzeko eta atzeraldiak saihesteko. 70eko hamarkadan, moneta-ekonomiaren orekaren arloan, gobernuen aurrekontu-defiziten ondorioetan eta, oro har, egonkortze politikan egin den ikerketa inspiratu zuen Tobinen Lanak –zabala eta sortzailea–.

1971ko abuztuaren 15ean, Richard Nixonek iragarri zuen AEBko dolarrak ez zuela urrerako bihurtasunik, eta, ondorioz, 1944an, Breton Woods-en hasitako sistema desagerrarazi zuen. 1973an, oro har, abian jarri zen kanbio-tasa flotatzaileen sistema. Tobinek moneta egonkortzeko nazioarteko sistema berria proposatu zuen, dibisen transakzioen tasaren edo zergaren bitartez. Helburua dibisen trafikoetako epe laburreko espekulazioa zigortzea zen.

---

<sup>45</sup> *Press Release: The Sveriges Riksbank (Bank of Sweden) Prize in Economic Sciences in Memory of Alfred Nobel for 1981.* <http://kilop.atspace.com/tobin-press.html>. helbidean eskuragarri.

<sup>46</sup> KEYNES, J. M. (1936), *The General Theory of Employment, Interest and Money*.

<sup>47</sup> TOBIN, J. (1972), *The New Economics One Decade Older. The Eliot Janeway Lectures on Historical Economics in Honour of Joseph Schumpeter*. Princeton University Press, 1974.

<sup>48</sup> TOBIN, J. (1978), *A proposal for International Monetary Reform*, Eastern Economic Journal, IV. lib., 15359. orrialdea.



Tobin Tasa, edo CTT (*Currency Transaction Tax*), “dibidendu bikoitzaren” marko dualean sartzen da, alde batetik, finantza-baliabideak sortzen dituelako, eta, bestetik, erregulazio-helburuetarako tresna-gisa balio duelako.

2007ko Basileako Nazioarteko Ordainketa Bankuaren azken datuen arabera, dibisen transakzioen bolumen orokorra, bere merkatu eta instrumentu nagusienetan, 7,4 bilioi dolarrekoa<sup>49</sup> izan zen.

Zenbateko hori litzateke zergaren oinarritzko hipoteka. %0,0005eko tasa sinbolikorako zeinak nekez oztoka dezakeen merkatuen normaltasuna eta eraginkortasuna, merkatuaren 250 egun baliodun eta biderkatzeko 2ko faktorea estimatuta, zerga transakzioaren bi aldeetan aplikatuta, urteko kuota AEBko 185 miliar<sup>50</sup> dolarrekoa litzateke, Milurtekoko Garapen Helburuetarako konprometitutakoaren bikoitza.

## 2. Mekanismoaren funtzionamendua

Hurrenez hurren aztertuko ditugu Zerga-oinarria, Zerga-tipoa eta Zergaren Ordainarazpena eta Ondare Kudeaketa<sup>51</sup>.

### ZERGA-OINARRIA: ZER DA TASATZEN DENA?

Tesi nagusiak dio eskurako dibisa-merkatuetan –izan antolatutak zein *over the counter*– egiten diren dibisen transakzioetan, eperako dibisen erosketen epean eta dibisen trukeetan ezarri behar dela zerga, nahiz ezin den esan erabateko adostasuna dagoenik.

### ZERGA-TIPOA: ZENBAT TASATZEN DA?

Azken 35 urteetan, zerga-tipoa txikituz joan da, banan-banako zerga-oinarriaren %1eko hasierako formulazio heroikoetatik %0,005eraino<sup>52</sup>.

---

<sup>49</sup> BANK FOR INTERNATIONAL SETTLEMENTS (2007), *Central Bank Survey of Foreign Exchange and Derivatives Market Activity in 2007*. [www.bis.org/press/po7219.htm](http://www.bis.org/press/po7219.htm) helbidean eskuragarri. *Bilioi* terminoarekin milioi bat milioi ulertzen da.

<sup>50</sup> Mila milioi.

<sup>51</sup> CARNERO ROJO, E.; CEBALLOS RODRÍGUEZ, J.; MARTÍNEZ HERNÁNDEZ, A. eta ROMÁNS GARCÍA, J. (2003), *La Tasa Tobin*, Deustuko Unibertsitatea, Zuzenbide Fakultatea, Nazioarteko Ekonomia.

<sup>52</sup> KAPOOR, S. for the *Tobin Tax Network* (2004), *The Currency Transaction Tax. Enhancing Financial Stability and Financing Development*. [www.tobintax.org.uk/download.php?id=270](http://www.tobintax.org.uk/download.php?id=270) helbidean eskuragarri.

1994an, Paul Bernd Spahn<sup>53</sup>-ek Tobin Tasaren egokitzapen bipolarra proposatu zuen, zergaren bi helburu nagusiak lortzeko: gizarte-helburuak dituen zerga-ordainarazpena eta dibisen merkatuari zuzendutako politika antiziklikoa<sup>54</sup>. Lehen zatia (%0,01 edo 0,02), Spahn-ek PFTT izendatu zuena (ingelesezko sigletan, Politikoki Bideragarria den Tobin Tasa), era guztietako eragiketei automatikoki aplikatzen zaie, eta merkatuaren jarduera *normalean* etengabeko bilketa sortzen du. Bigarren zatia (%50eko eta baita %100eko tipoarekin), *Exchange Rate Normalization Duty*<sup>55</sup> (Aldaketa Tipoaren Normalizaziorako Tasa), dibisaren prezioak Banku Zentralek edo Erregulaziorako Autoritateek jarritako banda edo muga *onargarriak* gainditzen dituenetan soilik aktibatuko litzateke. Horrela, aldaketa-tipoak muga objektibo baten baitan mantenduko lirateke, Banku Zentralaren esku-hartzerik gabe eta erreserba zentralak alferrik xahutu gabe. Eredu horrekin esku-hartzerako erreserbak mantentzeko aukerako kostuak desagertu egiten dira. Kostu horiek berebiziko eragina dute garapen bidean dauden herrialdeetan<sup>56</sup>.

#### ZERGAREN ORDAINARAZPENA: NORK BILTZEN DU?

Aukera bat baino gehiago dago. Ekonomialari batzuek jadanik existitzen diren instituzioetan oinarritzea proposatzen dute. Banku Zentralak eta herrialde bakoitzeko Zerga Administrazioa lirateke nazio mailan erretentzioa jartzearen arduradunak. Egoitza Basilean duen Nazioarteko Ordainketen Bankuak nazioarte mailako laguntza eskainiko luke. Munduko Bankuak eta NDFk bilketaren zenbatekoa jaso eta aurrekontuan sar lezakete, hurrenez hurren, garapena finantzatzeko eta beren esku hartze-maila indartzeko<sup>57</sup>.

Beste ekonomialari batzuen arabera, aipatutako Instituzioen pasiboak eta iraganean eragin zituzten porrotek eta higadurek behin betirako kendu die zerga kudeatzeko behar den onespina. Are gehiago, Tasa demokraziarekin lotzen duen

---

<sup>53</sup> SPAHN, P.B. (1996), *The Tobin Tax and the exchange rate stability*. Finance and Development. SPAHN, P.B. (2002), *On the Feasibility of a Tax on Foreign Exchange Transactions*, Federal Ministry for Economic Cooperation and Development. [www.wiwi.uni-frankfurt.de/professoren/spahn/tobintax](http://www.wiwi.uni-frankfurt.de/professoren/spahn/tobintax) helbidean eskuragarri.

<sup>54</sup> SPAHN, P.B. (1996), op. cit.

<sup>55</sup> SPAHN, P.B. (2002), op.cit. Kapoor-ek bigarren tasa *circuit breaker* izendatu zuen. KAPOOR, S. (2004), op.cit.

<sup>56</sup> KAPOOR, S. (2004), op.cit.

<sup>57</sup> BIRD, G. eta RAJAN, R. (1999), *Time to Reconsider the Tobin Tax Proposal*. Surrey Centre for International Economic Studies, University of Surrey, UK.

kate-maila ezin hautsi daiteke. Zergatik bildutako zenbatekoak “ordezkaritzarik gabeko zergarik ez”<sup>58</sup> printzipioaren arabera bildu behar lirateke.

ATTAC<sup>59</sup> en arabera, Nazioarteko Institutu berria sortuko litzateke –esaterako, PNUDen bidez Nazio Batuen familian integratua edo LANErekin kolaborazioan–. Eztabaidatzeke geratuko litzateke nola bermatu instituzio berriaren ahalik eta gardentasun handiena. Herrialde bakoitzeko gobernuak, parlamentuko eta gizarte zibileko ordezkari anitz arduratuko lirateke horretaz.

Eatwell eta Taylor-ek Munduko Finantza Autoritate bat (ingelesezko siglekin, WFA) sortzea proposatzen dute. Erakunde horrek Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) osatuko luke. WFaren eginkizun nagusia arrisku sistemikoa kudeatzeko politikak garatzea litzateke. WFaren helburuek hazkunde- eta enplegu-tasa altuak mantentzeko politikak exijitu beharko lituzkete<sup>60</sup>.

### 3. Zergaren bideragarritasun teknikoa

Zerga abian jartzeko bi galdera sortzen dira. Lehena espekulazio-eragiketak beste eragiketengandik legez bereizteko aukerari buruzkoa da. Bereizketa hori egiteko mekanismo praktikorik badago? Erantzuna baiezkoa balitz, espekulazio-eragiketak zergapetu eta merkatuko gainerako eragiketentzat zerga kendu edo txikitu liteke?

Bigarrenik, transakzioak elusio-bide gisa zergarik gabeko finantza-zentroetara ez desbideratzeko, zerga mundu osoan aplikatu behar litzateke? Galderak, bere aldetik, berehalako beste galdera bat dakar: neurria mundu-mailakoa izan arren, egongo litzateke beste elusio-bide edo -modurik?

Lehen galderari erantzuteko, esan dezagun espekulatzea *aukerak* maneiatzea dela, gertakizunei aurea hartzea –gerta daitezkeenak ala ez–, baina merkatuan

---

<sup>58</sup> BÖÖK, M. *Despite Dispute: Reflections upon a brainstorming over the currency transaction tax en More Taxes: Promoting Strategies for Global Taxation* Penttinen, J.; SORSA, V. eta YLÖNEN, M.-ek editatua eta 2005ean ATTAC Finland-ek argitaratua. 46-61 orrialdeak. [www.attac.fi/moretaxes](http://www.attac.fi/moretaxes) helbidean eskuragarri.

<sup>59</sup> CASSEN, B. *La taxe Tobin, comment la gérer et pour financer quoi*, ATTAC. 2000ko martxoaren 28a. [www.local.attac.org/35/La-taxe-Tobin-comment-la-gerer-et](http://www.local.attac.org/35/La-taxe-Tobin-comment-la-gerer-et)

<sup>60</sup> EATWELL, J. eta TAYLOR, L. (1999), *Towards an effective Regulation on International Capital Markets*, International Politics and Society, Politik und Gesellschaft Online 3/1999. [www.fes.de/ipg/ipg3\\_99/arteatwell.html](http://www.fes.de/ipg/ipg3_99/arteatwell.html) helbidean eskuragarri. Egile beren beste lan bat (2000), *Global Finance at risk: The case for International Regulation*, New York, The New Press.

eskaintza edo eskaera bat gauzatzeko mementoan zail da beste motibazio batzuk eragindakoengandik bereiztea (adibidez, arbitraje- edo estaldura-motibazioak).

Herrialde industrializatu gehienetan, partikularrek eta enpresek jarrera espekulatiboak izateko duten muga bakarra beren ondareak jartzen die; eta Banku Zentralek badituzte, azken finean, bolumen txikiko eragiketa horiek identifikatzeko baliabideak. Banku-sistema bera da, bere kontu jardunda, garrantzi eta arrisku handiagoko eragiketak egin ditzakeena. Baina, diru xehea errazten dutenez<sup>61</sup>, merkatu sortzaile diren neurrian, norabide bakarreko espekulazioa edo beste dibisa bati zuzeneko eraso egitea helburu ez duten dibisetan posizioak har ditzakete eta hartu behar dituzte. Nahiz Gainbegiratzen duen Entitateak, Banku Zentralak, eragiketa horiei buruzko xehetasunak eduki, zail da *market making*-a eta espekulazioa banatzen dituen lerroa zehaztea.

Bigarren galderak, elusio-bideei edo -moduei dagokienak, dibisen banku-arteko eragiketen konpentsazio-mekanismoei buruzko azalpen zehatzagoa behar du. Zehaztaper horiek gainditu egiten dituzte artikuluko honen edukiak<sup>62</sup>.

%0,0005eko tasarentzat –oinarrizko puntu-erdiaren hamarren bat, zeina proposamen egingarria den–, legea betetzeak duen kostu baxua eta horri lotutako errepentazio-arriskuak ez lituzke erabakia eta elusioari lotutako kostuak justifikatuko. Elusioa ez da zuzenean ihes gisa kontsideratua (hau da, indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik iruzur fiskala), baizik, *by-pass*-a, eta, bere kasuan, lege-iruzurra, Zerga ez ordaintzea *legearen barruan* saihestuz. Zirkuitu alternatiboei esker burutzen den elusioan, bigarren mailako konpentsazio-sistemataranzko migrazio-kostuek, bere kasuan, berekin ekarriko lukete eskala-ekonomien, eraginkortasunaren eta segurtasunaren galera, eta horrek elkartasunik gabeko entitateak etsiaraziko lituzke. Zerga konpentsazio-lekuan kobra liteke, TARGET komunitarioaren, CLSren (Continuous Linked Settlement) edo Banku Zentralek (Estatu Batuetan CHIPS, Alemanian RTGS, Erresuma Batuan CHAPS, Swiftnet, etab.) gainbegiraturako bestelako konpentsazio-sistema zentralizatuen bidez.

---

<sup>61</sup> Banku-talde handiek (big players) berengan hartutako *Market maker* edo merkatu-sortzailearen funtzioa uneoro bi norabidetan dibisa kotizatzean datza; hau da, dibisaren erosketa zein salmenta kotizatzea, bereizi gabe eta memento berean; kontrapartida existitzeko eta merkatuan likidezia mantentzeko ezinbesteko funtzioa.

<sup>62</sup> NOLTE, M. (1995), *El Mercado de Divisas: lógica o irracionalidad. Nuevos enfoques de gestión bancaria*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.

Testuinguru horretan, kontuan izan behar dira indarrean sartuko diren Basileako Kapital Akordioak (*Basilea II*). Akordio horien baitan –nazioarteko banku-sisteman berehalakoan eragingo dute–, Bankuek gorde beharreko kapital erregulatzailea eragiketako kontrapartidaren kreditu-kalitatearen (*rating*) arabera izango da. Kontrapartidaren arriskua zehazteke dauden sistemen bidez deuseztatuko litzateke –segur aski CLSa–, eta errekonozimendu txikiagoko sistemak erabiltzen dituzten instituzioena baino kapitalaren karga txikiagoa ekarriko luke<sup>63</sup>.

Era berean, zergaren elusiorako deribatuak erabil badaitezke ere, hori ez da bide-argarria eskala handian, deribatuen merkatuak ezin baitu era bakartuan eragin-korki funtzionatu. Deribatuen merkatuetako transakzioek, era batean edo bestean, eskuko konpentsazioen sisteman azaltzen amaitzen dute, nahiz neurri handiagoan edo txikiagoan atzeratu daitezkeen.

CLS sistemaren eboluzioak eta hazkunde esponentzialak erakusten dute mekanismo hori oso egokia dela zerga era zentralizatuan eta kostu baxuekin biltzeko. Finantza-transakzioen tasa bat (*stamp duty* edo beste batzuk) jadanik aplikatzen da Europako hainbat herrialdetan eta munduan. Erresuma Batuan, Irlandan eta Belgikan, tasa automatikoki kobratzen da konpentsazio-sistemen bidez. Metodo hori dibisen transakzioen tasarako erabili liteke<sup>64</sup>.

#### 4. Zergaren bideragarritasun Politikoa

Gizarte zibilak ahalegin handia egin du dibisen transakzioen nazioarteko tasa jartzearen alde<sup>65</sup>. Baina zergak jartzea Estatuaren erabakia da eta, tasa orokorrak ekimen adostu baten emaitza litzatekeen nazio-gobernuen arteko akordio orokorra eskatzen du. Gaur egungo egoeran, zalantzan jartzen den multilateralismoa-rekin, suposizio horrek benetako aurrerapausoak emateko aukeren aurrean ezkor jartzen gaitu.

Azken mende-laurdeneko tradizio liberalak eragotzi egin zuen Tobin Tasak herri-tartze-agiria erdiestea, eta, espekulazioaren aurkako instrumentu gisa, merkaturuetan egin diren era guztietako esku-hartzeak baztertu egin dira. Poliki-poliki,

---

<sup>63</sup> Continuous Linked Settlement (CLS Bank): [www.cls-group.com](http://www.cls-group.com)

<sup>64</sup> Cf. JETIN, B. *Ready for implementation-en Technical and legal aspects of a currency transaction tax and its implementation in the EU*, 2006ko otsaila, WEED. [www.weed-online.org/publikationen/bestellung/index.html](http://www.weed-online.org/publikationen/bestellung/index.html)

<sup>65</sup> HEIKI PATOMÄKI eta LIEVEN A. DENYS-ek *Itun Proiektu* (2002) bat saiatu eta idazteraino. Ikus PATOMÄKI, HEIDI eta DENYS LIEVEN, *Draft Treaty on Global Currency Transactions Tax*. [www.nigd.org/ctt/en/CTT-treaty](http://www.nigd.org/ctt/en/CTT-treaty)

herrialde aberatsetan areagotzen joan den kontzientzia sozialak eta 2000n Milurtekorako Garapen Helburuak jarri izanak, gaiaren inguruan, berriz ere, interes politikoa sortu zuten; bilketarako asmoak piztu ziren, eta, tresna horretan, garapena finantzatzeko iturri emankorra bilatu zen. Orduan ikusi zen ekimen politikoaren bateratasun herabea; horietako batzuk –adierazgarrienak– kontatuko ditugu. Azaldu besterik ez ditugu egingo, era kronologikoan<sup>66</sup>.

## MUNDU MAILAN

1999ko martxoan, Kanadako Parlamentuak Tobin Tasaren aldeko txostena idazteko akordioa lortu zuen. Kanadako Ordezkaritzak, urte bereko Nazio Batuen gailur sozialean Tobin Tasari buruzko ikerketa bat eskatzeko zuzenketa aurkeztu zuen (2000). Ondoren, Kanadak Dibisen Transakzioak Zergak (TTFa, erderaz sigletan) jartzeko araudia berretsi zuen, eta gainerako herrialdeek oro har ezar dezakete.

58. osoko batzarrean, 2003ko iraila-urrian, *Nazio Batuen* Batzar Orokorrak erabaki zuen “59. saioan garapena finantzatzeko iturri berriak aztertzea, eta gaiari buruzko ikerketaren emaitzak Monterrey-ko Ituneko 44. puntuan aurreikusi bezala sar dezan eskatzea Idazkari Nagusiari”<sup>67</sup>. Dibisen transakzioetarako zerga izan zen proposatutako konpentsazio-mekanismoetako bat. 2003ko abenduaren 23ko 58/230 Erabakian, garapena finantzatzeko iturri berritzailei buruzko ikerketa berriak sustatu zituen. Ikerketa horren emaitza gisa, 2004ko abuztuaren 17an<sup>68</sup> Nazio Batuen Zerbitzu Konferentzian aurkeztu zen *Atkinson Txostena* lortu zen. Besteak beste, dibisen transakzioentzako tasa bat jartzea defendatu zen.

2004ko irailaren 21ean, Nazio Batuetako Idazkari Nagusiak Batzar Orokorrari ohar bat helarazi zion (UNU-WIDER<sup>69</sup> ikerketaren laburpen politikoa, aipatutako *Atkinson Txostena*) eta garapenerako iturri berriak topatzea premiazkoa zela azpimarratu zuen. Iturri berri horien artean dago finantza-transakzioeta-

---

<sup>66</sup> Cf. Tobin Tax: preparatory note to the first Interparliamentary Meeting on the Tobin Tax at The European Parliament on 28 June 2000. Tobin Tasaren aldeko Parlamentarioen Buletina, 6 zenbakia. 2001eko urria; ikus, halaber, CIDSE: Redistribution through innovative measures: background Paper: A currency transaction tax, 2004ko iraila. [www.cidse.org](http://www.cidse.org)

<sup>67</sup> Nazio Batuen A/C.2/58/L.83 Erresoluzioa, Nazio Batuen bigarren batzordeak 2003ko abenduaren 15ean, 58. saioa amaitzean aurkeztua, 4&14 orrialdeak.

<sup>68</sup> NAZIO BATUEN BATZORDE OROKORRA, Doc A/59/272. 2004ko abuztuaren 17a. Eranskina: ATKINSON, A. B. (2004), *New Sources of Development Finance*, Oxford University Press.

<sup>69</sup> Nazio Batuetako Unibertsitatea, Garapenaren Ekonomiari buruzko Ikerketa Institutua.

rako tasa<sup>70</sup>. Harrigarriki, 2005eko abenduko data duen Gai Fiskaletako Nazioarteko Kooperaziorako Aditu Batzordearen lan zabalak, Nazio Batuen Batzorde Ekonomikoak izendatua, ez du gai horri buruzko inolako aipamenik egiten<sup>71</sup>.

Bestalde, Nazioarteko Diru Funttsaren (NDF) *Staff*-ak eta Munduko Bankuak Garapen Batzordearen 2005eko apirilaren 17ko bilerarako prestatutako dokumentu batek gai honi buruzko sentsibilizaziorako azterketa garrantzitsua aurkezten du<sup>72</sup>.

## EUROPAKO BATASUNEAN

*Finlandiako Gobernuak* ofizialki eman zuen tasaren aldeko iritzia (2000).

Europako Parlamentuaren baitan eta Hamabiek moneta bakarra hartu aurretik, Tobin Tasa moneta bateratuarekiko bigarren mailako optimotzat duen dokumentua argitaratu zen<sup>73</sup>. 2000. urtean, Batzordeak dibisen mugimenduen tasa baten bideragarritasunari eta interesari buruzko ikerketa bat egiteko eztabaida sortu zuen 90 parlamentarioz osatutako talde mistoak. Proposamenak NDFra eta G8en idazkariarengana zuzentzeko aholkatzen du, finantza-paradisuen aurkako eta, oro har, finantza-ihesa sustatzen duten herrialdeen aurkako zigor posibleak aztertzeko. 220 parlamentariok bozkatu zuen alde, eta proposamena sei bozka-ko tarte urriagatik ez zen onartu.

2001ean, Belgikaren presidentziapean, Europako Batasuneko ECOFIN<sup>74</sup>ek tasari buruzko azterketa barne bilduko zuen globalizazioaren erronkei buruzko ikerketa eskatu zion Europar Batasunari. Emaitzak 2002an<sup>75</sup> argitaratu ziren. Txosten hori 2002an Garapenaren finantziazioari buruzko Nazio Batuen konferentzian EBk hartu zuen jarreraren oinarria izan zen. Urte berean, Europako Parlamentuko

---

<sup>70</sup> NAZIO BATUEN IDAZKARI OROKORRA (2004), *Innovative Sources Financing for Development*. [www.wider.unu.edu/events/book-launch-FFD/sg-note-and-related-documents/English.pdf](http://www.wider.unu.edu/events/book-launch-FFD/sg-note-and-related-documents/English.pdf) helbidean eskuragarri.

<sup>71</sup> United Nations. Committee of Experts on International Cooperation in Tax Matters. Report on the first session (5-9 December 2005). Economic and Social Council, Official Records 2005. Supplement N<sup>o</sup> 25.

<sup>72</sup> IMF/WB DEVELOPMENT COMMITTEE (2005), *Moving forward Financing Modalities toward the MDGs*, Background document. DC2005-0008/Add. 1. [siteresources.worldbank.org/DEVCOMMIT/Documentation/20449410/DC2005-0008\(E\)-FinMod%20Add1.pdf-en](http://siteresources.worldbank.org/DEVCOMMIT/Documentation/20449410/DC2005-0008(E)-FinMod%20Add1.pdf-en) eskuragarri.

<sup>73</sup> EUROPEAN PARLIAMENT (1999), *The Feasibility of an International Tobin Tax*, Economic Affairs Series, ECON.107 EN (PE 168.215). [www.europarl.europa.eu/workingpapers/econ/107\\_en.htm](http://www.europarl.europa.eu/workingpapers/econ/107_en.htm)

<sup>74</sup> EBko Ekonomia- eta Finantza-ministroak.

<sup>75</sup> COMMISSION OF THE EUROPEAN COMMUNITIES, *Responses to the Challenges of Globalisation: A study on the International Monetary and Financial System and on Financing for Development*. <http://globalpolicy.igc.org.socoecon/un/unctad/2002/0228euglobal.htm>

diziplina arteko talde batek (Fiskala eta Globalizazioari buruzkoak) Tobin Tasari buruzko eztabaida antolatu zuen. Parlamentuak ikerketa egiteko mandatua eman zuen<sup>76</sup>. Ikerketa 2002ko martxoan argitaratu zen.

2006ko otsailean, eta Pariseko Konferentzia zela-eta (Internacional Conference on Innovative Sources of Finance for Development), tasa horri buruzko eztabaida txiki bat egin zen<sup>77</sup>.

2002an, *Frantziako Parlamentuak* Finantzen 2002 Lege Nazionalari zuzenketa bat erantsi zion. Transakzioei gehienez %0,1eko zerga jarri zioten, eta, hala erabakiz gero, Europa mailan jarri ahal izango zen<sup>78</sup>.

2003an, Chirac Presidenteak Garapena Finantzatzeko Iturri Berritzaileetako adituen taldea sustatu zuen. Talde horren txostena 2004ko irailaren 14an argitaratu zen, eta, bertan, beste aukera batzuen artean, dibisen transakzioetarako tasa baten bideragarritasuna erakusten du (*Landau Txostena*).

Segur aski, dibisen transakzioetarako tasa sustatzeko bidean arrakasta handiena *Belgikako Parlamentuak* 2004ko uztailean Legea bozkatu izana izan zen. Europako ingurunean Spahn ereduak erarik artikulatuenean sartu zuen araudia izan zen<sup>79</sup>. Legeak 16 orrialde ditu, eta European orokortzen joan dadin aurrekari garrantzitsua da. Bestela izan ezin zitekeenez, azken klausulak dio zerga indarrean sartuko dela, Euroeremuko herrialde guztietako legedietan hori ahalbidetuko duten kondizioak onartzen direnean. Bere meritua historikoa eztabaida askotara zabalik dagoen ideia hezurmamitu izana da. Horretarako, BEZaren legediaren oso antzeko artikulazioa erabili da.

Europako Batasunaren kasuan –eremu bateratu gisa–, lege-muga bati egin behar diogu aurre. Izan ere, Europako Merkatu Bateratuaren ezaugarriak dira ekonomiko askatasun handiak. Horietako bat kapitalaren mugimendurako askata-

---

<sup>76</sup> EUROPEAN PARLIAMENT (2002), *Feasibility and impact of taxation for development assistance on international capital transactions*, Working Paper, DG for Research, Development series, DEBE 104 EN.

<sup>77</sup> EUROPEAN PARLIAMENT (2006), *Joint Motion for a Resolution on the New financial instrument for development in connection with the MDG*, B6-0143/2006.

<sup>78</sup> FRANTZIAKO BATZORDE NAZIONALA, 2002 Finantza Akta, zk. 3262, 2001eko azaroaren 19an bozkaturia, Finantza Kode Orokorreko 986 artikulua aldaketa, [www.globalpolicy.org.sococom/glotax/currtax.htm](http://www.globalpolicy.org.sococom/glotax/currtax.htm)

<sup>79</sup> Doc 51,0088/003 Chambre des Représentants de Belgique. 1er Juillet 2004. Projet de Loi instituant une taxe sur les opérations de change de devises, de billets de banque et de monnaies. [www.globalpolicy.org.sococom/glotax/currtax.htm](http://www.globalpolicy.org.sococom/glotax/currtax.htm) helbidean eskuragarri.



sun da. EBko itunaren 56. artikulua eta bat datozenek eta ondorengo direktibek eta komunitate mailan aplikagarri diren beste araudiek kapitalaren mugimenduei oztopoak gutxitzea ekarri dute. Kapitalaren mugimenduen askatasuna hertsatzeko instrumentu gisa<sup>80</sup>, Europako Batasuneko herrialde guztiek araudi bat onartzea beharrezko litzateke. Itunaren mailakoa litzatekeen araudi hori komunitate-ondarearen parte izango litzateke, horrela, aho batez, dibisen transakzioetarako zergak proposatzen duen gisako murrizketa emateko, hori balitz azpiko motibazioa.

Bide alternatiboa defendagarria den honako printzipio honetan oinarrituko litzateke: EBak ez du zeharkako zergen konpetentzia eskusibarik eta Herrialde Kideak dibisen transakzioetarako zerga bat sartzeko askatasuna dute<sup>81</sup>. Desberdintasun fiskalak ez daude debekatuak Komunitateko Legedian. Hala ere, Zergaren 2. zatia (Exchange Rate Normalization Duty), Moneta Politikaren instrumentu argia izanik, EBren konpetentzia izango litzateke eskusiboki.

Mundu mailako eztabaida politikoaren egoerari buruzko laburpena, 2005ean, Kolonian egin zen European Currency Transaction Tax Network-en aktan aurki daiteke<sup>82</sup>.

Azkenik, Espainian eztabaida politiko desorekatua eman izan da. Oraingoz ez da ondorio argirik ateratzen<sup>83</sup>.

## 5. Ondorioa

Normalean, idazki doktrinal sakonei lotua (ikuspegi neoliberalaren aurkako jarraera generikoa eta politika ekonomiko liberalen autonomia berreskuratzea, edo, txandaka, merkatu librea gorestea), Tobin Tasa beti agertu izan da garapenerako errentak sortzeko instrumentu ahaltsu gisa. Areagotzen ari den printzipio horren kontzientziazioa eta bere bideragarritasun teknikoa, orain arte, ez dira dagozkien erabaki politikoekin lagunduak izan.

---

<sup>80</sup> NOLTE, M. (1987), *La libre circulación de capitales en la CEE. Consecuencias de su aplicación al modelo español*, Bilboko Bursa, Finantza Informaziorako Buletina, 23. zenbakia, 17-45 orrialdeak.

<sup>81</sup> DENIS, L. eta JETIN, B. (2005), *Ready for Implementation. Technical and legal aspects of a currency transaction tax and its implementation in the EU*, World Economy, Ecology and Development. [www.weed-online.org/publikationen/bestellung/index.html](http://www.weed-online.org/publikationen/bestellung/index.html) helbidean eskuragarri.

<sup>82</sup> [www.cttcampaigns.info/ecttn/Cologne%20meeting/ECNminutes.pdf](http://www.cttcampaigns.info/ecttn/Cologne%20meeting/ECNminutes.pdf)

<sup>83</sup> Estatu mailan eta erkidegoan zergak izan duen eboluzio politikoaren panoramika hemen aurki daiteke: *La Tasa Tobin*, CARNERO ROJO, E.; CEBALLOS RODRÍGUEZ, J.; MARTÍNEZ HERNÁNDEZ, A. eta ROMÁNS GARCÍA, J. (2003) op.cit.

